



**Sagardoetxea**  
*herri baten erroak*



**FORMAZIO EGITARAUA  
2008KO MAIATZETIK UZTAILERA**

**Kontaktua**

SAGARDOETXEA. José Mari ALBERRO 943 550 575

## SAGARDOETXEA-ITSASMENDIKOI FORMAZIOA

**Frutagintzan nazioarteko aditua denak, bere ezagutzak azalduko ditu Astigarragako Sagardo Museoan.**

## **Yves Barrancok Sagarrondoaren errendimenduari buruzko ikastaroa emango du Sagardoetxean**

Yves Barranco frantziarrak (frutagintzan aditua eta nazioartean aholkulari ospetsua) ikastaroa emango du sagastien errendimenduari buruz. Sagardoetxeak antolatu du, Euskal Sagardoaren Museoak, maiatzaren 7 eta 8rako.

Sagardoetxearen helburua da sagar eta sagardo ekoizleen ezagutzak handiagotzea, eta urtero formazio programa espezializatuak antolatzen ditu. Aurten sagastien aprobetxamenduak izango du garrantzia, eta horretarako pisu handiko aditua den pertsona baten presentzia izateko ahalegin berezia egin du Sagardoetxeak.

Ikastaroan lurra eta eguraldia aztertuko dira bereziki eta sagar mota eta gidatzeko sistema egokiak aukeratzearen garrantzia ere bai. Horrez gain, bideragarritasun azterketa ere egingo da, nekazaritza mailakoa eta ekonomikoa.

Sagardoetxeak martxan jarri duen ikastaro programa, uztailekoak itxiko du: 'udarako kimaketa eta txertaketak', Aitor Etxeandia eta Josu Osa teknikarien eskutik.

Ikastaroak Sagardoetxeak eta Ikasmendikoik antolatu dituzte, eta sagar eta sagardo eta deribatuen ekoizleei zuzenduak daude, eta enologia eta nekazal teknikariei.

## Formazio egitaraua 2008

### SAGARRONDO EMANKORRAK ALDATZEA.

**Sagasti batean errendimendu onenak lortzeko teknikak.**

**Nori zuzendua:** Sagar, sagardo ekoizleak eta sagar eta sagardotik datozen produktuen ekoizleei, nekazaritza teknikariei, eta abar.

**Data:** Maiatzak 7 eta 8

**Ordutegia:** 10:00-14:00

**Iraupena:** 8 ordu

**Ikastaroa emango du:** Yves Barrancok

**Lekua:** Astigarragako Sagardoetxea

#### **Egitaraua:**

Sagardo-sagar sagasti batean eragiten duten faktoreak

Lurra eta eguraldia

Barietatea eta txertaka aukeratzea

Gidatze sistema aukeratzea

Beharrezko ekipamendua

Nekazal bideragarritasuna eta ekonomikoa

### UDARAKO KIMAKETA ETA TXERTAKETAK

**Nori zuzendua:** Sagar eta sagardo ekoizleak eta sagar eta sagardotik datozen produktuen ekoizleak, nekazal teknikariak eta abar.

**Data:** Uztailak 3

**Ordutegia:** 10:30-13:00 eta 16:00-18:30

**Iraupena:** 5 ordu

**Ikastaroa emango dute:** Aitor Etxeandiak eta Josu Osak

**Lekua:** Astigarragako Sagardoetxea

#### **Egitaraua:**

#### **Udako kimaketa.**

Arbolaren indarra kontrolatzeko udako kimaketak duen garrantzia azalduko da. Kimaketa honetan urteko kimu berriak kentzen dira eta altuera kontrolatu. Udako kimaketa ilargiari begira egin behar da: ilbeheran eginez gero, sagarrondoak indarra galduko du, eta ilgoran eginez gero, indartu egingo da. Teoriko eta praktikoa izango da ikastaroa.

**Txertaketa.** Begiko edo hazaleko txertaketa egiten ikasiko dute ikastarora inguratzen direnek. Praktikoa izango da eta txertaketa ondo egiteko pauso guztiak ikusiko dira. Ikastarora inguratzen direnek praktikatzeko aukera izango dute, abuztuan txertaketan hasi aurretik.

## Yves Barranco

Frutagintzan aholkularia, Frantziako ARBUS HABILIS enpresan. Frantzia, Argelia eta Marruecosen egiten du lan eta Iruñako ARBUS HABILIS enpresako kide ere bada.

Frutagintza kooperatiba batean hasi zen teknikari lanetan, Frantzia erdi aldean. Geroztik, EURO FRUIT ASSISTANCE enpresako kide izan zen 2000 urtera arte. Orduan sortu zuen ARBUS HABILIS, eta 2006an Iruñako ARBUS HABILIS enpresaren sorreran parte hartu zuen.

Yves Barranco 1999an jarri zen harremanetan Gipuzkoako Frutagintza Elkartearekin, FRUITELekin, sagar produktoreei aholkuak emateko eskaria egin ondoren. Horrela hasi ziren Gipuzkoako zenbait ekoizle kopurua eta kalitatea hobetzeko ezagutzak hartzen.

Harreman honen ondorioz sortu zen ARBUS HABILIS enpresa, Yves Barranco eta Gipuzkoako SAGARLAN enpresako teknikarien eskutik.

Momentu honetan, Yves Barrancok 4.000 sagasti hektarearen aholkularitza darama Frantzian eta 2.500 hektarearena Afrika hegoaldean.